193. ALEA - 2026KO AZAROA

BASABURUKO UDAL BULETINA

ERREDAKZIOA: AMETZA

www.basaburua.eus
udala@basaburua.eus
948 50 30 35

INDUSTRIA SUSTATZEKO PLANA

Cederna Garalur Elkartea Mendialdeko udalekin industria-lurzorua aztertzeko eta bertako jarduera sustatzeko lanean ari da. Lehenengo diagnostiko bat osatuko da guneen eta lokalen inbentarioa eginez. Ondoren, bertako guneak bultzatuko eta promozionatuko dituen plan estrategikoa diseinatuko da. Horretarako, Naider enpresa kontratatu dute. Basaburuan inbentarioa eginda, azaroan diagnostikoaren eta plan estrategikoaren zirriborroa idatzi dute. Laster, eskualdeko industria-mahaia osatuko da enpresekin eta ekintzaileekin, haien proposamenak eta lehentasunak jasotzeko. Horrekin plana findu eta Basaburuko Udalarekin partekatuko da. Datu gehiago hurrengo orrialdean.




PROMOCIONAR LA INDUSTRIA

La Asociación Cederna Garalur y los ayuntamientos de Mendialdea están trabajando en un plan para analizar el suelo industrial y promocionarlo. En fase de diagnóstico, se ha realizado un inventario de polígonos y locales. Después diseñarán el plan estratégico que impulsará y promocionará el suelo industrial de la zona. Para ello, Cederna Garalur cuenta con la empresa Naider. En Basaburua el inventario está completo y en noviembre han escrito el borrador del diagnóstico y del plan. Pronto se formará la mesa industrial con las empresas y emprendedores de Basaburua para recoger sus propuestas y prioridades. Con ello se afinará el borrador que se compartirá con el Ayuntamiento. Más datos en la siguiente página de este boletín.

Buletin hau birziklatutako paperean inprimatu da / Este boletín se ha imprimido en papel reciclado

BASABURUAN JARDUERARAKO AUKERAK

Aurreko orrialdean aurkeztu bezala, Cederna Garalur Elkarteak eta Mendialdeko Udalek, Basaburukoa barne, industria guneen eta lurzoruen diagnostiko bat egin dute Naider enpresaren bitartez, ondoren, hauek sustatzeko plan estrategikoa osatzeko. Basaburuko lehenengo azterketan ondorioztatu dutenez, Iruñerriari begira dagoen ibarra izanik ere, bere tamainarako jarduera ekonomikoa handia du. Izan ere, Basaburuak 819 biztanle, 82 enpresa eta 106 jarduera ekonomiko zituen 2025ean. Mendialdeko bataz bestekoaren gainetik, 100 biztanleko ia 13 jarduera dira (Mendialdean 11,5 da bataz bestekoa). Gure udalerriko herritarren %61 langile autonomoak dira, Mendialdekoen %6 baino gehiago. Jarduera guneei dagokionez, Beramendiko S-1 industriagune berria nabarmentzen da txostenean, baina baita Aizarozko lokalak ere. Aukera berriak izanen lirateke Jauntsaratsen, Berueten eta Erbitin dagoeneko kokatzen diren dendei, zerrategiei, gaztandegiei eta biltegiei gehitzeko. Txostenak, alkatetzaren laguntzarekin egina, aukera hauek promozionatzearen beharra seinalatzen du.



OPORTUNIDADES EN BASABURUA

Como hemos presentado en la anterior página, Cederna Garalur y los ayuntamientos de Mendialdea, incluido el de Basaburua, están realizando mediante la empresa Naider un diagnóstico del suelo y la zona industrial para diseñar un plan estratégico. Según el primer análisis aún siendo un valle que mira a Iruñerria, Basaburua tiene una actividad económica grande pese a su tamaño. Y es que con 819 habitantes, Basaburua tenía 82 empresas y 106 actividades económicas en 2025. Por encima de la media de Mendialdea, eso suponen casi 13 actividades por 100 habitantes (en Mendialdea la media es de 11,5). El 61% de los trabajadores de nuestro valle son autónomos (%6 más que la media de Mendialdea). Respecto a las zonas de actividad, el informe destaca el polígono S-1 de Beramendi y los locales de Aizarotz. Estos suponen nuevas oportunidades que se sumarían a las tiendas, carpinterías o queserías que ya existen en Jauntsarats, Beruete o Erbiti. El informe que se ha realizado con la ayuda de alcaldía, también señala la necesidad de promocionar lo que ya existe.

Buletin hau birziklatutako paperean inprimatu da / Este boletín se ha imprimido en papel reciclado

ADINEKO EMAKUMEAK: EZ AHAZTUAK, EZTA IKUSEZINAK ERE

Basaburuko Udalak Azaroaren 25eko, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguneko, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak onartutako mozioarekin bat egin du. Urtero bezala, toki- eta lurralde-erakundeak emakumeen aurka erabiltzen diren indarkeria matxista mota guztiak gaitzesteko elkartu dira. Baina aurten kanpainak arreta jarri du sozialki ikusezin bihurtutako errealitate batean: adineko emakumeek jasaten duten indarkeria matxistan. '**Ez ahaztuak, ezta ikusezinak ere**' lelopean, "indarkeria horrek ezaugarri zehatzak izan ditzakeela" eta "etapa aurreratuetan eta mendekotasun-egoeretan areagotu daitekeela" azpimarratu dute. Gainera, kasu hauetan "zaildu egin daitekeela detekzioa eta esku-hartzea". Besteak beste, mendekotasun ekonomikoa, kolektibo gisa ikusezin bihurtzea, indarkeriaren normalizazioa, zaintza gainkarga edo erasotzailearekin luzaroan bizitzea aipatzen dira indarkeria aitortzeko eta baliabideak eskuratzeko oztopo gisa. Nafarroako tokiko erakundeekin batera, Basaburuko Udalak bost konpromiso hartu ditu onartutako mozioan. Osorik irakurtzeko sartu basaburua.eus webgunean.



MUJERES MAYORES: NI OLVIDADAS, NI INVISIBLES

El Ayuntamiento de Basaburua aprueba la moción aprobada por la Federación Navarra de Municipios y Concejos en el marco del Día Mundial Contra la Violencia Machista, el 25 de noviembre. Como todos los años, las entidades locales y territoriales se unen para condenar todas las formas de violencia machista que se ejercen contra las mujeres. Sin embargo, este año la campaña pone el foco en una realidad socialmente invisibilizada: la violencia machista que sufren las mujeres mayores. Bajo el lema '**Ni olvidadas, ni invisibilizadas**', se busca subrayar que esta violencia puede "intensificarse en etapas avanzadas y ante situaciones de dependencia". Quieren llamar la atención en que en estos casos se puede dificultar "su detección e intervención". Señalan entre otros obstáculos para su reconocimiento o el acceso a recursos de este colectivo: la dependencia económica, la invisibilidad del colectivo, la normalización de la violencia, la sobrecarga en los cuidados o vivir con el agresor durante largo tiempo. Junto al resto de entidades locales, el Ayuntamiento de Basaburua se ha comprometido con cinco medidas que pueden leerse en la moción al completo en la página web basaburua.eus.

Buletin hau birziklatutako paperean inprimatu da / Este boletín se ha imprimido en papel reciclado

BERTAKOA ETA SASOIKOA BULTZATU

Bertako elikagaiak eta sasoikoak direnak bultzatzeko ekimena den Basaburuko Pintxo Lehiaketaren edizio berri bat iritsi da. Gizarte Politika Batzordeak bultzatzen du eta aurten azaroaren 21ean eta 22an; eta, 28an eta 29an izanen da. Igoako ostatua, Orokietakoa, Aizarozkoa eta Apeztegiberri taberna parte hartzen ari dira. 13:30ak arte lehiaketarako prestatuko duten pintxo berezia dastatu daiteke, edariarekin batera, lau euroren truke.



KILOMETRO 0 Y DE TEMPORADA

Llega una nueva edición del Basaburuko Pintxo Lehiaketa, que tiene como objetivo apoyar el producto local y de temporada. Organizado por la Comisión de Políticas Sociales, este año se celebra el 21 y 22 de noviembre, y el 28 y 29 de noviembre. Participan la Posada de Igoa, la de Orokieta, la de Aizarotz y Apeztegiberri Taberna. Se puede degustar el pintxo especial que han preparado para el concurso, junto a una bebida por cuatro euros. Hasta las 13:30.

ADMINISTRARI BERRIA

Basaburuko udalak administrari berria du aldi baterako zegoen aurreko langilea ordezkatuko duena. Ultzamaldeko Mankomunitateko lan poltsako zerrenda jarraituz kontratatu da eta C mailako kontratuarekin.

NUEVA ADMINISTRATIVA

El Ayuntamiento de Basaburua cuenta con una nueva administrativa que sustituirá la anterior trabajadora de contrato temporal. El nuevo contrato se ha realizado siguiendo la lista de la Mancomunidad de Ultzamaldea y es de nivel C.



EGUTEGIA/ CALENDARIO:

AZAROA/ NOVIEMBRE

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

ABENDUA/ DICIEMBRE

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

- III. GAZTAINA FERIA, JAUNTSARATS
- I. GAZTE EGUNA, JAUNTSARATS
- A25, INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO EGUNA
- PINTXO LEHIAKETA
- EUSKARAREN EGUNA
- PILOTA GOXOKO FINALA
- OIHANZABAL ESKOLAKO EGUBERRIKO JAIALDIA
- OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA

Buletin hau birziklatutako paperean inprimatu da / Este boletín se ha imprimido en papel reciclado